
BERGARAKO UDALA
Kale-garbiketa zerbitzuko arduradun lanpostua betetzeko deialdia
arautuko duten oinarriak

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da kale-garbiketa zerbitzuko arduradun lanpostua betetzea lehiaketa-oposizio bidez eta txanda librean. Beteko den lanpostua da udalak onartuta duen lanpostuen zerrendan 10.07.01 kodea duena.

Lanpostua sailkapeneko C1 taldekoa da, eta 9. mailari dagokion soldata-maila du. Lanpostua baloratu gabe dago; balorazioa egindakoan, horren emaitza kontratazioaren lehen egunetik aplikatuko da.

Halaber, 3. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Lana astelehenetik igandera eta jaiegunetan egingo du. Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaera eta premien arabera.

2.- Betekizunak

Deialdi honen xede diren lanpostuen eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Kale-garbiketa zerbitzua antolatu, herriko guneak eta guneetako garbiketa-premiak zehaztu, guneetan erabili beharreko garbiketa-sistema erabaki...
2. Langileak falta direnean zerbitzua antolatu, eta zerbitzuaren emaitzak hobetzeko zerbitzua antolatu modu egokienean...
3. Eguneroko intzidentziak bildu eta hobekuntza-proposamenak egin.
4. Zerbitzuari atxikitako materiala, makineria eta ibilgailuak antolatu eta kudeatu.
5. Zerbitzuaren gorabeheren berri eman, eta emandako irtenbideak justifikatu.
6. Langileen buru izateari dagokion ardura hartu.
7. Txoferrak ordezkatu falta direnean eta premiazkoa denean..
8. Zerbitzuari buruz dauden abisuen eta arazoaren ardura hartu, nahiz eta ordutegitik kanpo gertatu.
9. Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik, zerbitzu-buruak agintzen dizkionak.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokio, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- b) Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

- c) Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
- d) 16 urte beteta izatea.
- e) Lanbide Heziketa 2. mailakoa, Batxilergoa edo parekoa den titulazio-maila izatea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.
- f) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- g) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- h) 3. Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa.
- i) C motako gida baimena indarrean izatea.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiak, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:
 - Nortasun-agiriaren fotokopia.
 - Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
 - Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztatzearen fotokopia.
 - Eskabidean adierazitako merezimendua egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzak luzatutako "laneko bizitza" edo kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

- c) **Instantzian adierazten diren merituen zerrenda eta zenbatu egingo dira eta instantziarekin zenbaki bakoitzari dagozkion agiri(k) lagunduko ditu ZENBATUTA ere. Merituen agiriek eramango duten zenbakia egiaztatzen duten merituen zenbaki berdina izango da eta agiri bakoitzak beheko aldean eskuinean eskuz idatzita eta izangaiaren sinadurarekin joango da. Agiri denak josita entregatuko dira eta instantziari lagunduko diote**

d) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 laneguneko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, 30/1992 Legearen (*azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen*) 38.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

5.- Izangaiek onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan jarriko dira ikusgai. Udalak 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertutak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta adierazitako moduan argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko duen kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek eta langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoak izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude. Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaitortuko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

—Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak.

Ariketa hau bi frogetara osatuko dute:

1. Froga teorikoa. Kale-garbitzailearen zerbitzuko arduradun lanpostuaren eginkizunekin eta eranskinean jasotako galdetegiak jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoak, test moduko izango den edo/eta garatzekoa, eta nola puntuatuko den.

Froga honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

2. Froga praktikoa: kale-garbitzailearen zerbitzuko arduradun lanpostuarekin zerikusia du(t)en froga(k) egin beharko dituzte.

Froga honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira

Prozesuan aurrera jarraitzeko derrigorrezkoa izango da froga bakoitzaren puntuazioaren % 50a ateratzea.

— **Bigarren ariketa: Euskara proba, derrigorrezkoa eta baztertuailea.**

Euskarako froga. Izangaien euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira, froga hau gaitzen ez dutenek hautaketa bidetik baztertua geldituko dira.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 3. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

— **Hirugarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertuailea.**

Lanpostuaren profilari egokitzen den jakiteko ariketa/k egin beharko da/dira: test psikoteknikoak, elkarrizketa... eta abarrek osatu ahal izango dute ariketa hau. Epaimahaiak erabakiko du zelakoak eta bakoitzaren puntuazioa.

Ariketa honek gehienez ere 20 puntu izango ditu, eta 10 puntu lortzen ez duten izangaiak baztertua izango dira.

8.- Merezimenduen fasea.

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—Bete behar den lanpostuaren funtzioekin Bergarako udalean egindako lana: Gehienez ere 10 puntu arte, hileko 1 puntu.

—Bete behar den lanpostuaren funtzioekin eta kale-garbitaketa txofer kategoriarekin enpresa pribatuan egindako lana, beste inoren kontura eta kontratuarekin izan denean: Gehienez ere 4 puntu arte, hileko 0,15 puntu.

Merezimendu horiek, Enpresa-ziurtagirien edo zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako agirien bitartez eta gizarte segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz egiaztatu beharko dira. Egiaztagirietan betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

—Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek Laneko arriskuaren prebentzioaren arloan emandako ikastaroak edo mintegiak egitea, gehienez ere 4 puntu arte baloratuko da. Ikastaroek gutxienez 30 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 30 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

—Ofimatika Microsoft: Oinarrizko mailari dagokion IT txartela izatea 1 punturekin baloratuko da eta gehienez ere, 4 puntu.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gaitasun beharrek ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki-taulan emango da argitara ariketa gaitasun dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangaiaren azken kalifikazioa, proba baztertzailerak gainditu ondoren, oposizio-aldiko eta lehiaketa-aldiko puntuak batuta aterako da eta kalifikazio horrek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba psikoteknikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Epaimahaiak erabakitzen duen irizpidea.

Hautaketa-probetan Epaimahaiak ezin izango du deitutako plazak baino izangai-kopuru handiagorik gainditzat eman. Aurretik esandakoaren kontra doan bestelako edozein proposamen erabat deusezkoa izango da.

Epaimahaiak, merezimenduak baloratu eta ariketak kalifikatu ondoren, lehiaketa-oposizioa gainditu duen izangaiaren izena argitaratuko du. Era berean, hautaketa-prozedura gainditu duten izangai bakoitzaren behin betiko puntuazioa argitaratuko du, 9. oinarrian ezarritakoa betetzeko.

Izangaiek, behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, 10 eguneko epea izango dute Epaimahaiaren aurrean erreklamazioak egiteko. Epe hau bukatu eta gero, Epaimahaiak puntu gehien lortu duen izangaiaren behin betiko izendapen-proposamena egingo dio Alkatetzari.

Izangaietako inork ariketa baztertzailerak gaindituko ez balu, epaimahaiak plaza hutsik laga dezake.

Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko Iragarki Taulan eta web orrialdean argitaratuko ditu aipatutako zerrendak, eta Alkateari aurkeztuko dizkio, hautatuak kontratatzeko proposamenarekin batera

11. Deialdiko betebeharrak kreditatzea.

1. Onartu eta kontrataziorako proposatutako izangaiak lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 5. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu aipatutako argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.

2. Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoirik ez bada, izangaiak dokumentazio hori aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak egiaztatzen ez baditu kontratatzeko eskubide guztiak galduko ditu eta baliorik gabe geratuko dira ekintza guztiak, hasierako eskaeran egindako faltsutasunagatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak izendapen-proposamen berria egingo du ariketa baztertzailerak gainditu dituztenen artetik eta zerrendan azken puntuazio-hurrenkeran hurrengoak agertzen direnen alde, deitutako lanpostu-kopurua bete arte.

12.- Kontratazioa-Praktikaldia

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu finkoa egingo dio, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da bi hilabetekoa.

Kontratua egin aurretik enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

Frogaldi honek hautaketa prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

13.- Dokumentazioa Itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

14.- Prozesuaren Argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

16. Inpugnazioa.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

I. ERANSKINA

1. Zer da kale garbi bat. Definizioa.
2. Kale-garbiketa zerbitzuaren antolaketa eta exekuzioa.
3. Garbitu beharreko hiriguneak. Maiztasuna. Kaleen sailkapena.

4. Lurzoruen izaera dela edo beste oztopo batzuk direla, ager daitezkeen zailtasunak.
5. Prebenitzea, arautzea, zaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.
6. Garbiketa mekanikorako materiala aukeratzeko orduan, kontuan izan beharreko parametroak.
7. Kale-garbiketean eragina duten arazo partikularrak: elurra, orrien erorketa....
8. Laneko segurtasun- eta osasun-neurriak. Lan Arriskuak Prebenitzeko araudia. Oinarrizko kontzeptuen definizioa. Langileen eskubideak lan arriskuetatik babesteko. Langileen betebeharrak.
9. Bide-garbiketako lanen jarraipena eta koordinazioa. Hauei buruzko ideia orokorrak: eginbeharrak, erabilitako makinak, tresnak, brigadak antolatzeke moduak, eta haiek kontrolatzeko moduak (lan-txostenak, plangintza).
10. Hiri-hondakin solidoen bilketaren jarraipena eta koordinazioa. Hauei buruzko ideia orokorrak: eginbeharrak, erabilitako makinak, tresnak, brigadak edo azpikontratatuak enpresak antolatzeke moduak, eta haiek kontrolatzeko moduak (lan-txostenak, plangintza).
11. Fatxadetan pintadak eta kartelak kentzeko lanak
12. Materiala eta tresneria biltzea. Bilketa eta antolamendua, makinariaren eta tresneriaren mantentze-lanak, azterketak.
13. Saneamendu-sarea eta estolderia: garbitzea eta mantentzea.
14. Automobilaren oinarrizko mekanika.
15. Gasolinazko motoreak. Horien funtzionamenduaren oinarrizko ezagutza.
16. Diesel motoreak. Horien funtzionamenduaren oinarrizko ezagutza.
17. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea: II. eta III. tituluak.
18. Zirkulazioaren Araudi Orokorra: IV. Titulua.
19. Zirkulazio kodean jasotako ibilgailu motak, batez ere ibilgailu mistoak.
20. Garabi-kamioi motako ibilgailuak, beso artikulatua dutenak.
21. Udaleko langileen lan hitzarmena.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES DEL CONCURSO-OPOSICIÓN PARA LA PROVISIÓN DE 1 PUESTO DE ENCARGADO DE LIMPIEZA VIARIA VACANTE

Bases que regirán el concurso-oposición para la provisión de un puesto de encargado de limpieza viaria vacante en la plantilla de personal laboral del Ayuntamiento de Bergara.

1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA.

Constituye el objeto de estas bases regular la convocatoria para la provisión, mediante el sistema de concurso-oposición libre, de un **puesto de encargado de limpieza viaria**, vacante en la plantilla de laborales del Ayuntamiento de Bergara. El puesto a cubrir es el que corresponde al código 10.07.01 de la relación de puestos aprobado por el ayuntamiento.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo C1 de la clasificación y tiene asignada la retribución correspondiente al nivel 9. El puesto se encuentra pendiente de valoración; una vez efectuada la misma, su resultado se aplicará desde el primer día de contrato.

Asimismo, el puesto tiene asignado el perfil lingüístico 3, preceptivo.

El trabajo se prestará de lunes a domingo. El calendario laboral y el horario serán los fijados anualmente por el Ayuntamiento de acuerdo con las características del puesto y las necesidades del servicio.

2. FUNCIONES DEL PUESTO

Las funciones correspondientes al puesto objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

1. Organizar el servicio de limpieza viaria, concretar las necesidades de limpieza de las zonas y determinar las zonas, definir el sistema de limpieza a utilizar en las mismas...
2. Reorganizar el servicio cuando falten trabajadores y organizar el servicio del modo necesario para mejorar el resultado del servicio.
3. Recopilar las incidencias diarias y realizar propuestas de mejora.
4. Organizar y gestionar el material, la maquinaria y los vehículos adscritos al servicio.
5. Dar cuenta de las incidencias del servicio y justificar las soluciones adoptadas.
6. Ejercer de jefe y responsable del personal bajo su mando.
7. Sustituir los chóferes en su ausencia y/o cuando fuera necesario.
8. Responsabilizarse de los avisos y problemas relacionados en el servicio, aunque los recibiera fuera de su jornada de trabajo.
9. Aquellos que le sean encomendados por su superior jerárquico, y que estén relacionados con el puesto y categoría.

3. REQUISITOS DE LAS PERSONAS ASPIRANTES.

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el proceso de selección:

- a) Ostentar la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado Español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.
- b) Así mismo podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.
- c) Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. En caso de que resulten seleccionadas, y

previamente a la firma del contrato, deberán acreditar que cuentan con autorización administrativa para ejercer la actividad objeto de dicho contrato.

- d) Haber cumplido 16 años de edad.
- e) Estar en posesión del título de bachiller, FP II o equivalente o bien tener abonados los derechos para la obtención del título. En caso de titulaciones extranjeras, se deberá aportar el certificado de su homologación.
- f) No tener ningún impedimento físico, psíquico ni cualquier otro que impida la normal prestación de las funciones propias del puesto de trabajo.
- g) No haber sido separado del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.
- h) Perfil Lingüístico 3, preceptivo.
- i) Tener el permiso de conducción tipo C en vigor.

4. SOLICITUDES.

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en la Oficina del Registro del Ayuntamiento de Bergara, y que se adjunta a las presentes bases.

Las instancias para tomar parte en el concurso-oposición se dirigirán a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Bergara y deberán cumplir los siguientes requisitos para que no sean rechazadas:

a) Los/as aspirantes deberán hacer constar que reúnen todos y cada uno de los requisitos enumerados en la base tercera respecto al día de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I.
- Fotocopia de la titulación exigida para tomar parte en la convocatoria.
- En su caso, fotocopia del título o certificado que acredite el perfil lingüístico exigido.
- Documentos que acrediten los méritos señalados en la instancia, para su valoración en la fase de concurso.

